

## **Petronorrek hil honetan ekingo dio Euskadiko industri inbertsiorik handienari**

Muskizeko Udalaren Gobernu Bilkurak Petronori Fuel-olioa Murrizteko Unitatea eraikitzekeo jarduera eta lanak burutzeko baimena ematea adostu du. Harekin hasiko da ustez 2011ko lehen hiruhilabetean bukatuko den lan-egutegia, eta 810 milioi euro inbertituko dira hartan. Euskal Herriko historian gertatu den industri inbertsiorik handiena izango da. Haren eraikuntzan 1600 pertsona inguruk hartuko dute, 2500 ere izan daitezkeenak noizean behin.

Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen eraikuntzan hainbat kontratak hartuko dute parte, hiru jarduera-sektoretakoak nagusiki: obra zibila (zimenduak, pilotajea, zangak, aurrefabrikatutako egiturak, etab.), muntaketa mekanikoa (metalezko egiturak, konpresoreak, ponpak, hoditeriak, balbulak, suteen aurkako sistemak...) eta elektrizitatea eta instrumentazioa (transformadoreak, kontrol banatuko sistemak, kontrol balbulak, hainbat motatako kontroladoreak, azpiestazioak, motorren kontrolerako zentroak...), babes-sistemak, etab.

Eraikuntza-lanak ingeniariari, kontratei eta ekipoen hornitzaileei, euskaldunak zein nazioartekoak, emango diete lana. Aurrekontuko 810 milioi horietatik, 500etik gora esleitu dira dagoeneko. Lehen estimazioan, obra zibila, funtsean 2009an burutuko dena, proiektuaren %10 izango omen da, eta haren erdia, gutxi gorabehera, zimentuentzat eta eraikinentzat.

Lanak azpiegitura aldetik posible den bezain laster hasiko dira. Hau da, obra zibila (pilotajea, zimentuen prestakuntza eta hormigoi armatuzko oinarri sendoak), kableak lurperatzeko zangak irakitzea (instalazio elektrikoa, instrumentazioa eta kontrola), ur-kolektoreak eta etxolak muntatzea eta gainbegiraleek eta eraikuntzako langileek behar izaten dituzten zerbitzuguneak.

Ekoizpena 2011ko lehen hiruhilabetean hasi nahi da, aurreikusi den bezala, baina kogenerazio proiektua 2010eko hirugarren hiruhilabetean martxan egotea espero da. Kogenerazio-sistema URF plantak ekoiztutako gasa erabiliko badu ere, litekeena da urte bete lehenago martxan egotea gas naturalaren hornikuntzari esker.

Muskizen, 2009ko otsailaren 24an